




Bilbao Donostia-San Sebastián Vitoria-Gasteiz Pamplona-Iruña — urtarrillak 24-25 enero — 20:00 h.



EUSKADIKO
ORKESTRA

2010-2011

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica de Euskadi





Gaurko kontzertua

El concierto de hoy

DOINU IBERIARRAK. Fallak eta Braga Santosek musika iberiarren ikuspegia bana ematen dute, nolabait esateko barrendik sortutako ikuspegia eman ere. Cadiztarrak, jotak, farrukak, fandangoak eta seguidillas zapore eta kolore paregabeez lotzen dituen oinarri liluragarriko balet baten bitarte. Joan den mendeko sinfonista portugaldarrik handiena den lisboarrak, berriaz, bere oinarritzko inspirazio-iturri batean sakontzen duen sorkuntza-lan bikain batekin: Alentejoko folklorearekin. Falla jaio baino urtebete lehenago, Sarasate Lalo-ren partituarik ospetsuena estrenatu zuen Parisen. Obrak irudizko Spainia islatzen du, eta, betiere Frantziako ikuspegitik, Chabrier, Debussy eta Ravel konpositoreek jarraipena emango zioten.

SONES IBÉRICOS. Tanto Falla como Braga Santos brindan dos visiones de la música ibérica efectuadas, por así decir, desde dentro. El gaditano, a través de un ballet de inspiración deslumbrante que engarza, con sabor y color únicos, jotas, farrucas, fandangos y seguidillas. El lisboeta, sin duda el mayor sinfonista portugués del pasado siglo, con una página brillante que ahonda en una de sus fuentes básicas de inspiración: el folclore del Alentejo. Un año antes del nacimiento de Falla, Sarasate estrenaba en París la partitura más famosa de Lalo, recreación de una España imaginaria que, contemplada desde Francia, tendrá descendencia en Chabrier, Debussy y Ravel.

Hemen jarrai ahal izango
diguzu / Síguenos en:

[facebook](#) [flickr](#) [YouTube](#)

Y suscríbete al nuevo Euskor digital en

www.euskadikoorkestra.es

webgunean izena eman
Euskor digital berrian

Testuak / Textos:
Juan Manuel Viana



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Andrés Orozco-Estrada, zuzendari titularra

Egitaraua / Programa

Joly Braga Santos (1924-1988)

Abertura sinfónica nº3

(sobre un tema de carácter alentejano) [13']

Edouard Lalo (1823-1892)

Symphonie espagnole para violín y orquesta, opus 21 [31']

- I. Allegro non troppo
- II. Scherzando. Allegro molto
- III. Intermezzo. Allegretto non troppo
- IV. Andante
- V. Rondó. Allegro

2

Manuel de Falla (1876-1946)

El sombrero de tres picos. Suites

Suite nº1 [14']

- 1. Sarrera /Introducción
- 2. Errötari andrearen dantza /Danza de la molinera
- 3. Mahatsak/Las uvas

Suite nº2 [12']

- 1. Auzokoak /Los vecinos
- 2. Errötariaren dantza /Danza del molinero
- 3. Amaiera dantza/Danza final

Orquesta de Extremadura

orkestra gonbidatua / orquesta invitada

Jesús Amigo

zuzendaria / director

Alexandre da Costa

biolina / violín



Egitarauari Oharrak

Notas al Programa

Abertura sinfônica nº 3 (sobre un tema de carácter alentejano)

Joly Braga Santos- Lisboa, 14 de mayo de 1924 - Ibidem, 18 de julio de 1988

1946 eta 1972 urte bitarteko sei sinfoniarik, eta harietarako *Sinfonietta* (1963), *Bariaazio kontzertanteak* (1967) edo *Bariaazioak orkestrako* (1976) konposizio gailenak, beste hainbat partiturekin batera, nahikoa dira Joly Braga Santos lisboarra XX. mendeko sinfonista portugues handiena izan dela baiezatzeko. Braga Santosek konposizioa eta instrumentazioa ikasi zuen Luís de Freitas Brancorekin, bere garaiko musikari portugues erakargarriarenarekin alegia. Hark irakatsi zizkion César Francken esko-laren printzipio konstruktibo ziklikoak.

Hasiera batean hizkuntza modalaz eta Portugaleko antzinako polifoniaren erreferentziez baliatu zen, Sibelius edo Vaughan Williams maisuen eragina jaso izanaz gainera. Ondoren, urteak aurrera joan ahala, hizkuntza hori garatzen joan zen eta kromatismo askea atonalitatera hurbiltzen hasi zen tarteka, Venezian (1948) eta Erroman (1959-1960) hark egin izan zituen egonaldien ondorioz zalantzak gabe: hiri haietan ikasi zuen orkestra zuzendaritzaz Scherchen, Galliera eta Vottorekin, eta konposizioa Mortarirekin. Gainera, konpositoreengan eragina izan zuen ere bai garai hartan bere jaioterritik kanpo sortzen hasia zen abangoardiako musikarekin izandako harremanak. Konposizio irakaslea, izen handiko kritikaria eta orkestra zuzendaria, "erabateko" musikaria izan zen Braga Santos; eskuzabala, desinteresatua eta meritzakoa zuen oihartzuna beti jaso izan ez zuena. Hark landutako hizkuntzak, berez

Seis sinfonías, fechadas entre 1946 y 1972, junto con la *Sinfonietta* para cuerdas (1963), las *Variaciones concertantes* (1967) o las *Variaciones para orquesta* (1976), además de otras partituras de menor entidad, confirman al lisboeta Joly Braga Santos como el mayor sinfonista portugués del siglo XX. Braga Santos estudió composición e instrumentación con Luís de Freitas Branco, el más atractivo músico luso de su tiempo, que le enseñó los principios constructivos cílicos de la escuela de César Franck.

El lenguaje modal y las referencias a la antigua polifonía portuguesa, además del influjo de maestros como Sibelius o Vaughan Williams darán paso en años sucesivos a un lenguaje más evolucionado en el que el libre cromatismo se aproxima ocasionalmente a laatonalidad, consecuencia sin duda de sus estancias en Venecia (1948) y Roma (1959-1960), donde estudia dirección de orquesta con Scherchen, Galliera y Votto, y composición con Mortari, y a sus contactos con la música de vanguardia que se gestaba por entonces lejos de su país natal. Profesor de composición, reputado crítico y director de orquesta, Braga Santos fue un músico "total", generoso, desinteresado y no siempre suficientemente reconocido cuyo lenguaje, provisto de un sentido innato de la orquestación, se apoyó, según Cassuto, en "una sólida arquitectura musical, una fuerte dramaturgia de generosas líneas melódicas y un instinto natural de la construcción y la coherencia formal".



orkestraziorako joera zuenak, honako hauek zituen oinarritzat Cassutoren hitzetan: “arkitektura musical sendoa, dramaturgia ahalmentsua, lerro melodiko zabala eta eraikuntzaren eta koherentzia formalaren berezko sena”.

1954an landua eta urte hartan bertan uztailaren 22an Lisboako Kirol Pabiloian Pedro de Freitas Brancok Irrati Nazionalaren Orkestra Sinfonikoa zuzenduz estrenatua, *Abertura sinfonikoa 3. zk.* Braga Santosek Alentejoko folkloreatan eta paisaian inspiratuta konposatutako obretako bat da. Obra sorta horretan sartzen dira *Hirugarren* (1949) eta *Laugarren* (1950) *Sinfoniak*, *Kontzertua re-n* harietarako eta *Bariaizio sinfonikoak Alentejoko gai baten inguruari* (biak 1951n datatuak). Musika herrikoian sustraitua, oberturaren gai nagusia tronpak aurkezten du egunsentiko koloreak iradokitzen dizkigun orkestra atzean dela, eta bizitasun handiagoko pasadizo bati bide ematen dio autoreak hain berezkoa duen bulkada erritmikoa nagusitzu. Bigarren motiboa lirikoa da, hariek jotakoa, eta hirugarreña arinagoa, hariek eta klarinetek aurkeztua. Ondoren atal nagusian sartzen da eta, gero, berriro agertzen da hasierako Alentejoko gaia, oraingo honetan klarinetek jotakoa, soinu apoteosi bikain batean amaitzen den obraren azken atalera iristeari.

Elaborada en 1954 y estrenada en el Pabellón de los Deportes de Lisboa el 22 de julio de ese año por Pedro de Freitas Branco al frente de la Sinfónica de la Emisora Nacional, la *Abertura sinfónica nº 3* pertenece a un conjunto de obras de Braga Santos inspiradas en el folclore y el paisaje del Alentejo, en el que se incluyen las *Sinfonías Tercera* (1949) y *Cuarta* (1950), el *Concierto en re para cuerdas y las Variaciones sinfónicas sobre un tema alentejano* (fechadas ambas en 1951). De raíces populares, el tema principal de la obertura, expuesto por la trompa sobre un fondo orquestal de carácter contemplativo que sugiere los colores del amanecer, da paso a un episodio más vivo dominado por un impulso rítmico muy característico de su autor. Un segundo motivo de carácter lírico, a cargo de las cuerdas, y un tercero más ágil, presentado por cuerdas y clarinetes, desemboca en la reposada sección central. La reaparición del tema alentejano inicial, ahora en la voz del clarinete, encabeza el último segmento de la obra que culmina en una brillante apoteosis sonora.

Symphonie espagnole, para violín y orquesta, opus 21

Edouard Lalo- Lille, 27 de enero de 1823 - París, 22 de abril de 1892

1875eko otsailaren 7an, *Carmen* estrenatubaino lau aste lehenago, Pablo Sarasatek Laloren *Symphonie espagnole* aurkezu zuen Parisko Kontzertu Herrikoien barruan. *Sinfonia española* ez da berez sinfonía bat ezta benetan kontzertu bat ere, fantasía kontzertante antzeko bat baizik, Berliozen *Harold Italian* edo Bruchen *Fantasia escoziarra* obren antzera.

1873an idatzia, *Fantasia española* obrak Laloren musikak ezaugarri dituen osagai guztiak biltzen ditu, kontuan izanik Lille jaiotako frantsesa izan arren XVI. mendetik Flandesen ezarritako familia española baten ondorengoa

El 7 de febrero de 1875, apenas cuatro semanas antes del estreno de *Carmen*, Pablo Sarasate presentaba en el marco de los Conciertos Populares de París la *Symphonie espagnole* de Lalo. Ni auténtica sinfonía ni verdadero concierto, la Sinfonía española se asemeja más a una fantasía concertante, al estilo del *Harold en Italia* de Berlioz o de la *Fantasia escocesa* de Bruch.

Escrita en 1873, la *Fantasia española* reúne todos los ingredientes característicos de la música de Lalo, francés nacido en Lille pero descendiente de una familia española asen-



zela: bizitasun handiko erritmoak, harmonia fina eta melodía xehe bezain erakargarria, betiere orkestrazio trebe eta eraginkorrik lagunduta. Habanera, jota eta malagueñaen erritmoek “españiar” kutsu argia ematen diote partitura distiratsu honi, hainbat belaunalditako musikari frantsesek landutako exotismoa elikatuz, Bizet eta Saint-Saëns eti eta Chabrier (España), Massenet (Cid-a), Debussy (Iberia) eta Raveleraino (Rapsodia española), errealtatean baino irudimenean oinarritutako España pintoreskoagoa -Merimée eta Gautierren zenbait testutan agertzen dena- bisortzeari dagokionez bere ekaria egin zuen honi.

Obra ohi ez bezala dago banatuta, antzera irauten duten bost mugimendutan (bigarrena bakarrik da laburragoa). Hasierako sonata moduko *Allegro non troppo* oso desberdinak diren bi gai aurkezten ditu: lehena indar handikoa eta bigarrena oso lírico, habanera erara. Gitarraren zarrasta imitatuz, harien *pizzicati* batzuek bide ematen diote improbisazio moduko *Scherzando*ari, hirukoiztuta eta jota eta seguidilla gogora ekartzen dizigutu erritmoekin. Birtuosismo handia darion erdiko *Intermezzoan*, aurretik sarritan baztertu eta Sarasatek eskatuta Lalok gehitu omen zuen honetan, moreska erritmo berritzale bat agertzen da, atal honek bereizgarri duen ekialdeko kutsua zabalduz. Ondorengo *Andante*ari metalek ematen diote hasiera koral goibel baten antzera eta larritasun handiko giroa da bertan nagusi, neurri batean biolin solistak jotako motibo makalduak arinduko duena: aiene malenkoniatsuma, tarteka ukitu zingaroak darizkiona. Aitzitik, bukaerako *Rondó* erritmo distiratsuen erabateko eztanda bat da. Fagotak aurkeztutako gai urduriak, baita ondoren datorren Namouna bailetean ere, Lalok talde erritmiko etenak errepikatzeko zuen obsesioa aditzera ematen digu.

*Symphonie espagnole*ren ondoren, Sarasatek, Laloren hitzetan “biolinaren lehoiak”, autore beraren *Fantasia norvegiarra* eman zuen ezaguatzen. Geroago, exotismo kutsu nabaria darion *Kontzertz errusiarra* (1879), hori ere biolinera obra, eta biolin eta orkestrarako bi partitura labur, *Errromantza-Serenata* eta *Fantasia-Baleta* idatzi zituen. Dena den, konposizio horietako batek ere ez zuen lortu bere maisulan honek lortutako izugarrizko arrakasta.

6.

tada en Flandes desde el siglo XVI: ritmica vigorosa, sutileza armónica y un sencillo pero atractivo melodismo servidos siempre por una orquestación tan hábil como efectiva. Ritmos de habaneras, jotas y malagueñas esmalzan esta rutilante partitura procurándole esa inconfundible coloración “española” que, para el exotismo practicado por los músicos franceses de varias generaciones desde Bizet y Saint-Saëns hasta Chabrier (España), Massenet (El Cid), Debussy (Iberia) y Ravel (Rapsodia española), contribuiría a recrear una España -la que aparece en algunos textos de Merimée y Gautier- más imaginaria y pintoresca que real.

La obra adopta una infrecuente división en cinco movimientos de similar extensión (solo el segundo es más breve). El *Allegro non troppo* inicial en forma de sonata presenta dos temas muy contrastados: dotado de gran energía el primero y muy lírico el segundo, a modo de habanera. Unos *pizzicati* de la cuerda imitando el rasgueo de la guitarra abren el improvisatorio *Scherzando*, de forma ternaria y rítmica remisniente de la jota y la seguidilla. Muy virtuosístico, el *Intermezzo* central, omitido antaño con frecuencia pues según la tradición fue añadido por Lalo a instancias de Sarasate, incluye un innovador ritmo de moresca que presta al fragmento su peculiar aroma orientalizante. En el posterior *Andante*, iniciado en forma de sombrío coral por los metales, se concentra una atmósfera de intensa gravedad, aliviada en parte por el lánguido motivo que entona el violín solista, un melancólico lamento de ocasionales inflexiones cíngaras. Por el contrario, el *Rondó* final constituye una rotunda explosión de ritmos centelleantes. El nervioso tema expuesto por el fagot revela, como en el posterior ballet *Namouna*, la obsesión de Lalo por la repetición de incisivas células rítmicas.

Con posterioridad a la *Symphonie espagnole*, Sarasate -el “león del violín”, según expresión de Lalo- dio a conocer la *Fantasia noruega* del mismo autor. También éste escribiría más tarde otra obra para violín de pretendido exotismo, el *Concierto ruso* (1879), y dos páginas breves para violín y orquesta, la *Romanza-Serenata* y la *Fantasia-Ballet*. Pero ninguna de estas composiciones alcanzaría la formidable popularidad de su incontestable obra maestra.



2.

El sombrero de tres picos. Suites nº 1 y nº 2

Manuel de Falla- Cádiz, 23 de noviembre de 1876 - Alta Gracia, Argentina, 14 de noviembre de 1946

Madrilgo Eslava Antzokian, 1917ko apirilaren 7an, Joaquín Turinak *Korregidorea eta errotaria* “fartsa mimikoa” obraren estreinaldia zuzendu zuen. Martínez Sierra senar-emaztearen libreto bati buruzko obra hau Fallak konposatu zuen. *Hiru puntako kapera kontakizuna du oinarritzat*, 1874an Pedro Antonio de Alarcón granadarrak argitaratua. Urte askoren ondoren harekin batera libretoa idatzi zuen María Lezárraga adierazi bezala, “*Maitasun sorgindua*k izandako arrakastak bultzatuta, pantomima bat sortu nahi izan genuen. Hura izan zen gerora baleta izan zenaren sorburua, eta Europan eta Amerikan antzeztu izan zen eta oraindik ere antzezten da *Hiru adarrekoa izenarekin*”. Gerra Handiaren hasiera zela eta, Serguei Diaghilev-en Errusiako Baleten konpainia Espainiara etorri zen. Enpresari famatuak Fallari balet berri bat egiteko eskatu nahi zion. Kadiztar honek ezetza eman zion eskariari, hau da, bere *Gauak Espainiako lorategietan* obra ekialdeko kutsu nabaria izango zuen koreografiako partitura bihurtzeari. Obra hark liluraturat utzi zuen Diaghilev Granadako Karlos Varen jauregian entzun zuenean, eta bide eman zuen garai hartan Falla lantzen ari zen pantomima xumearren inguruan balet handi bat konposatzeko.

Libretoa, orkestrazioa eta jatorrizko obraren egitura behar bezala aldatuta, *Hiru puntako kapera*, Fallak bere helduaroarekin batera gero eta erradikalizazio aszetiko handiagoan izan zuen etenaldi neoklasiko distiratsuari esker, 1919ko uztailaren 22an estrenatu zen Londresko Alhambra Antzokian, Diaghilev bakarrik bil zezakeen talde baten eskutik: Massineren koreografia, dekoratuak, jantziak eta atzeoihala, Picassorenak (bi urte lehenago Satieren *Parade* obran enpresari errusiarrarekin lankidetzan aritu), Ansermeten musika zuzendaritza eta Karsavina-Massine duoa, errortari

En el Teatro Eslava de Madrid, Joaquín Turina dirigía el estreno el 7 de abril de 1917 de la “farsa mímica” *El corregidor y la molinera*, compuesta por Falla sobre un libreto del matrimonio Martínez Sierra basado en el relato *El sombrero de tres picos*, publicado en 1874 por el granadino Pedro Antonio de Alarcón, como señalaría muchos años después su colibrétista María Lezárraga, “animados por el buen éxito de *El amor brujo*, buscamos asunto para una pantomima. Así nació el que luego fue ballet y se representó y sigue representándose por Europa y América con el título de *El tricornio*”. El inicio de la Gran Guerra había hecho que la compañía de Ballets Rusos de Serguei Diaghilev recalara en España. El famoso empresario deseaba encargar a Falla un nuevo ballet. La negativa del gaditano a convertir en partitura coreográfica de tintes orientalizantes sus *Noches en los jardines de España*, obra que entusiasmó a Diaghilev cuando la escuchó en el granadino palacio de Carlos V, posibilitó la composición de un gran ballet sobre la modesta pantomima en la que Falla trabajaba por entonces.

Debidamente modificados el libreto, la orquestación y la estructura de la obra primigenia, *El sombrero de tres picos*, suerte de luminoso paréntesis neoclásico en la progresiva radicalización ascética que acompañará la maduración de Falla, fue estrenado el 22 de julio de 1919 en el Teatro Alhambra de Londres por un equipo que sólo Diaghilev podía congregar: coreografía de Massine, decorados, vestuario y telón de boca de Picasso (que dos años antes había colaborado con el empresario ruso en *Parade* de Satie), dirección musical de Ansermet y el dúo Karsavina-Massine como la pareja de molineros. El éxito fue indescriptible.



bikotea zirela. Izugarrizkoa izan zen obrak lortu zuen arrakasta.

1921ean bi kontzertzuitetan bildu zituen partitura koreografiko zabalaren funtsezko edukiak. *Sarreran*, fanfarria laburra *Arratsaldeko* kolore leun eta sentsualak iragartzen ditu, eta horietan motibo herrikoia aipatzen dira (“Mairu-zapia”, murtziarra, eta jota nafor bat), hurrenez hurren errotari makurraren eta haren emazte erakargarriaren irudi izanik. *Errotariaren dantza*, guitarra zarrastadak imitatzentzu ditu orkestrak, emakumea fandango bat dantzatzen eta korrejidorea hura gorteiatzen saiatzen ari den bitartean. Korrejidorearen agur groteskoak, fagotak jotakoak, *Mahatsak* iragartzentzu ditu: sedukziozko eszena zoragarria, senar-emaztearen burlekin eta agintaritzaren ordezkarriak haserre bizian egindako martxarekin amaitzen dena. *Auzokoen dantzak, Suite 2.* zk.rí hasiera ematen dio seguidilla erritmoa. *Errotariaren dantza* liluragarriak jarraitzen dio, Massinek bere trebezia erakusteko estreinaldia hasi baino ordu batzuk lehenago Fallak konposatutako bizitasun handiko farrukak. Azken dantza emakumezko errotariaren jota gailentzen da distiratsu, eta amaiera liluragarria ematen dio maisulan jori, arranditsu eta beti harrituta utzik gaitun honi.

En 1921 Falla aglutinó en dos suites de concierto los contenidos esenciales de la amplia partitura coreográfica. En la *Introducción*, la breve fanfarria preludia los delicados y sensuales colores de La tarde, en los que se citan motivos populares (“El paño moruno”, murciano, y una jota navarra) que representan respectivamente al contrahecho molinero y a su atractiva esposa. En la *Danza de la molinera* la orquesta imita rasgueos de guitarra mientras ésta baila un fandango y el corregidor intenta cortearla. El grotesco saludo del corregidor en el fagot anuncia *Las uvas*, deliciosa escena de seducción que concluye con las burlas del matrimonio y la marcha encolerizada del representante de la autoridad. La *Danza de los vecinos* inicia, a ritmo de seguidillas, la *Suite nº 2*. Sigue la arrebatadora *Danza del molinero*, vibrante farruca compuesta por Falla horas antes del estreno para lucimiento de Massine. La *Danza final*, en la que estalla en todo su esplendor la jota de la molinera, pone brillantísimo remate a esta exuberante, suntuosa y siempre sorprendente obra maestra.

Gure iradokizun diskografikoa Nuestra sugerencia discográfica

E. Lalo:

Symphonie espagnole

Pinchas Zukerman, violín/violín.

Orquesta Filarmónica de Los Ángeles.

Zuzendaria/Director: Zubin Mehta.

Sony, 1977.

M. de Falla:

El sombrero de tres picos, suites nº 1 y nº 2

Orquesta Filarmónica de Nueva York.

Zuzendaria/Director: Leonard Bernstein.

Sony, 1961.



Musika argudio La música como pretexto

“ Braga Santosek sinfonismo latindarra garatzen jardun zuen, aurreko belau-naldian nagusi zen joerari aurka egingo ziona eta zegokion monumentaltasuna gaitzetsiko zuena. Braga Santos se dedicó a desarrollar un sinfonismo latino que reaccionara contra la tendencia dominante de la generación precedente y rechazara su monumentalidad.” **-A. Cassuto-**

“ Beste ezer baino lehen, hegoaldeko sensibilitatea duen artista iruditzen zaigu Lalo. Harentzat, musikak, bere alderdirik espontaneoenean, ametsezko dantza baten itxura hartzen du naturaltasunez. Lalo nos parece, ante todo, un artista de sensibilidad meridional para quien la música, en su aliento más espontáneo, reviste de un modo natural la forma de una danza ideal.” **-P. Dukas-**

“ Pertsona zoragarria zen Falla, funtzionario lotsati eta txiki baten itxura bazuen ere. Zirraragarria benetan gizontxo baketsu hura halako erritmo eta melodía eztandari bizitza emateko gai izan zela pentsatzea. Falla era una persona encantadora, pero su aspecto era el de un funcionario tímido y menudo. Era magnífico pensar que aquel hombrecillo apacible pudiera haber dado vida a aquella explosión de ritmo y melodía.” **-L. Sokolova-**

Haurtzarotik egon da musikari hertsiki lotua, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren lehengero biolina izandako bere aitari esker. Pianoa, komposizioa eta flauta ikasi zi-tuen eta, ondoren, orkestra-zuzendaritzat Enrique García Asensio, Antoni Ros Marbá eta Sergiu Comissionarekin. 2000. urtetik OEX-en zuzendari titular zein artistikoa da. Bere musika-osotasunak, indarrak eta adierazkortasunak bultzatzen duten izen onak Europa, Amerika eta Asian barrena Espainiako Orkestra Nazionala, Sofia Erregina Ganbera Orkestra, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Asturiasko Printzerriko, Canaria Handiko Orkestra Filarmonikoa, Sibiliako Sinfonikoa, Kammerorchest Berlin, Fort Wayne Philharmonic, Sinfonica di Roma, Beijing Symphony edo Mexikoko Orkestra Nacionala bezalako orkestrak zuzentzeko aukera eman dio eta lankidetzan aritu da Joaquín Achúcarro, M^a Joao Pires, Teresa Berganza, María Orán, Félix Ayo, Christian Lindberg edo Jorge Luis Prats bezalako bakarlariekin.

Desde su infancia ha estado fuertemente ligado a la música de la mano de su padre, primer violín de la Orquesta Sinfónica de Bilbao. Estudió piano, composición y flauta, y posteriormente dirección de orquesta con Octav Calleya, Enrique García Asensio, Antoni Ros Marbá y Sergiu Comissiona.

Desde 2000 es director titular y artístico de la OEX. Su excepcional reputación avalada por su integridad musical, intensidad y expresividad, le han permitido dirigir en Europa, América y Asia, agrupaciones como la Orquesta Nacional de España, la Orquesta de Cámara Reina Sofía, Sinfónica de Bilbao, Sinfónica del Principado de Asturias, Filarmónica de Gran Canaria, Sinfónica de Sevilla, Kammerorchest Berlin, Fort Wayne Philharmonic, Sinfonica di Roma, Beijing Symphony, Nacional de México... colaborando con artistas de la talla de Joaquín Achúcarro, M^a Joao Pires, Teresa Berganza, María Orán, Félix Ayo, Christian Lindberg, Jorge Luis Prats... www.jesusamigo.net

Jesús
Amigo
zuzendaria
director





Orquesta de Extremadura



Extremadurako Gobernuak 2000. urtean sortua, urriaren 27an Guadalupen eskaini zuen bere lehenbiziko kontzertua, bere zuzendari titular zein artístico Jesús Amigorena zuzendaritzapean. Bere repertorioak XVIII. mendeko musikatik garaikidera biltzen du, obra ugari eskuatu eta estrenatuz laguntza-politika biziki bultzatzuz. Jarduera sinfonikoa ikuskizun berriztatzaileagoekin uztartu du, La Fura dels Baus, Bebe, Nacho Campillo, Per Poc, English National Ballet, Fernando Argenta, Belén Otxotorena, Denis Rafter, José Vicente Moirón edo Roque Bañoskin lankidetzan aritu delarik. Abonu-denboraldia Badajoz, Cáceres, Mérida eta Plasencia burutzen du, Extremadurako hainbat herritan kontzertuak, eskola-haurrentzat eta familientzat kontzertuak, kontzertu bereziak eta birak (Portugal eta Txina) burutzeaz gain. Duela gutxi ganberazikloa eta interprete gazteena jarri ditu abian. OEX zuzendu dute Carlos Kalmar, José Ramón Encinar, Yeruham Scharovsky, Antoni Ros Marbá edo Enrique García Asensio maisuek eta María João Pires, Pepe Romero, Joaquín Achúcarro, Radovan Vlatkovík, Ara Malikian edo Asier Polo bezalako bakarlariekin aritu da lankidetzan.

Creada por la Junta de Extremadura en 2000, dio su concierto inaugural el 27 de octubre en Guadalupe, bajo la batuta de su director titular y artístico, Jesús Amigo. Con un repertorio que abarca desde el siglo XVIII hasta la música contemporánea, mantiene una política de apoyo encargando y estrenando un gran número de obras. También ha sabido combinar la actividad sinfónica con espectáculos más innovadores, como sus colaboraciones con La Fura dels Baus, Bebe, Nacho Campillo, Per Poc, English National Ballet, Fernando Argenta, Belén Otxotorena, Denis Rafter, José Vicente Moirón, Roque Baños, etc. Desarrolla su ciclo de abono en Badajoz, Cáceres, Mérida y Plasencia, además de conciertos en localidades extremeñas, didácticos para escolares, conciertos en familia, extraordinarios y giras (Portugal y China). Recientemente ha incorporado un ciclo de cámara y jóvenes intérpretes. Con la OEX han colaborado directores como Carlos Kalmar, José Ramón Encinar, Yeruham Scharovsky, Antoni Ros Marbá o Enrique García Asensio y prestigiosos solistas como María João Pires, Pepe Romero, Joaquín Achúcarro, Radovan Vlatkovík, Ara Malikian o Asier Polo. www.orquestadeextremadura.com

Alexandre da Costa

biolina
violín



1979.ean Montrealen jaioa, Johanne Arelekin biolina ikasi eta lehenbiziko sariarekin graduatu zen Québec-eko Kontserbatorioan 1998an. Bere espezializazioa Zakhar Bronkekin burutu zuen Sofia Erregina Goi Mailako Ikastegian. Bere ikasketan amaitzean 30 urtetik beherako kanadier artista onenari Sylvia Gelber Foundation Award delakoa irabazi zuen. Baita Canada Council for the Arts delakoaren Musical Instrument Bank-aren lehenengo saria eta horri esker 1689ko Stradivarius Baumgartner delakoa jotzeko aukera izan zuen. Bakarları gisa Europa, Asia eta Amerikan aritu da, London Philharmonic Orchestra, Berliner Sinfonie-Orchester, Montreal Symphony Orchestra edo ORTVE, eta Frühbeck de Burgos, Leonard Slatkin, Pedro Halffter, Robert Bernhardt edo Adrian Leaper maisuen zuzendaritzapean. Tайлerrak eta maisu-eskolak ematen ditu mundu osoko unibertsitate zein kontserbatorioetan. Besteak beste, Octave Classique, Universal, JVC diskotxekin egin ditu grabaketak. Canimex Fundazioak utzitako 1727ko Di Barbaro Stradivarius batekin eta Sartori arkua-rekin jotzen du.

Nació en Montreal en 1979. Estudió violín con Johanne Arel y se graduó con el Primer Premio del Conservatorio de Québec en 1998. Su especialización va de la mano del maestro Zakhar Bron, profesor de la Escuela Superior de Música Reina Sofía. Al terminar sus estudios ganó el Sylvia Gelber Foundation Award al mejor artista canadiense menor de 30 años. También el Primer Premio en el Musical Instrument Bank del Canada Council for the Arts, por el que se le concedió el privilegio de tocar el Stradivarius Baumgartner de 1689. Ha sido invitado como solista en Europa, Asia y América, colaborando con orquestas como la London Philharmonic Orchestra, Berliner Sinfonie-Orchester, Montreal Symphony Orchestra o la ORTVE, y directores como Frühbeck de Burgos, Leonard Slatkin, Pedro Halffter, Robert Bernhardt o Adrián Leaper. Imparte talleres y clases magistrales en universidades y conservatorios de todo el mundo. Ha grabado para Octave Classique, Universal, JVC, entre otros. Toca un Stradivarius 1727 Di Barbaro y un arco Sartory, cortesía de la Fundación Canimex. www.alexandredacosta.com



Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harramanetan jar zaitezke / Si desea conocer más detalles acerca de la nueva programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.



943 01 32 32 | www.euskadikoorkestra.es

Miramon Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

Hurrengo abonu kontzertua Próximo concierto de abono

Otsaila
7-10
Febrero

F. Schubert
Sinfonía nº2

Oleg Caetani
Zuzendaria / Director

J. Egiguren
Kindly Symphony
(erabateko estreinaldia, EOSen enkarguz/
estreno absoluto, encargo OSE)

C. Franck:
Sinfonía en re

Miramongo Matinéak Matinées de Miramón

Otsaila
5
Febrero

Kaabestri
Biolin gorria / El violín rojo


Sarreren salmenta
Venta de entradas



kutxa



SERVIKUTXA



943 00 12 00



www.kutxa.net

Taquilla KURSAAL leihatila
Días de actuación de la Fundación Kursaal
MATINÉES: Taquilla Sede
Día del concierto a partir de las 10:30h.

| www.euskadikoorkestra.es

II.



Euskadiko Orkestra Sinfonika Orquesta Sinfónica de Euskadi



EUSKADIKO
ORKESTRA